


6 mantangorri



AZOKA

LIBURUA

**Izenburua:** 'Ilargia esnatu da'.**Testua:** Joxan Ormazabal. **Marrazkiak:** Iraia Okina. **Orrialde kopurua:** 32 orrialde, koloretan. **Argitaletxea:** Elkar.**Zein teknikaz baliatu zara?**

Garrantzitsua izan da teknika eta material askotarikoen experimentazio lana. Teknika askotarikoak nahastu ditut. Errotuladoreak, tintak eta akrilikoak plastiko eta paper gainean, baita collagea ere; hala, konposizioarekin gehiago jolasteko aukera eman dit.

**Xehetasun koloretsu batzuk salbu, kolore apaleko marrazkiak dira.**

Momentu horretan horrela behar zuela iruditu zitzaidan. Kolore gehiago sartzen nion bakoitzean, ez ninduen konbentzitzen. Joxanek bere idatzietan zuhaitza erabiltzen zuen bizitzaren bilakaeraren ideia gisa; ideia horretan sa-konduz, materia organikoaren ehundura eta koloreak bilatzen saiatu nintzen.

**Marraztea gogoko duzula sumatzen da. Nondik datorkizu zaletasun hori?**

Nire aita, Santos Okina, pintorea da. Paisaiak egiten ditu. Pinturak garrantzi handia du bere bizitzan; harentzat, gaitz guztien kontrako antidotoa da pintura. Aitaren osabaren, Migel Okinaren ogibidea ere pintura izan da, baita haren anairena ere, Josu Okinarena. Beraz, esan liteke familiatik datorkidan zerbait dela. Txikitatik bizi izan dut pinturarekiko zaletasun eta pasio hori, eta, ziurrenik, orain egiten du dan horretan eragin handia izango du transmisio horrek.

Sorkuntza prozesuan murgilduta zaudenean, zaila egiten da egiten ari zarena modu hotz batean ikus-tea; askotan, hain lagungarria den kanpoko begirada hori aitak eman izan dit.

**Iraia Okina**

ILUSTRAZALEA

# «Poesiaz eta sentimenduz betetako irudiak egiten saiatu nintzen»

**G**aldera hunkigarriak egiteko ohitura zuen Joxan Ormazabal idazleak; tarteka, baita galdera zail eta pisuak ere. Galdera zurragarri horietako bat da istorioaren abiapuntua. Idazlearen hitz hunkigarriak eta leunak ilustrazio samurrez goxatu ditu Iraia Okinak.

Hain zuzen, *'Ilargia esnatu da'* ipuin-nerako egindako ilustrazioengatik, urrezko plaka eman zioten Iraia Okinari, irailaren erdialdean, Bratislavan (Eslovakia) egiten ari den ilustratzaileen Bienalean.

**Lehenik eta behin, zorionak Bratislavako sariengatik. Ezustekoa izan al da?**

Eskerrik asko. Haur eta Gazte Libruetarako Espainiako Erakundeak Espainiako 15 irudigileren artean aukeratua izatea garrantzitsua izan zen niretzat; ilusio handiz jaso nuen berria. Nolabait, hori izan zen saria niretzat. Eta, Bratislavan (Eslovakia), munduko erakusketa horretan, sariren bat jasotzea ez nuen inondik inora ere espero.

Nire lana nahiko bakartia da, eta egiten dudana norbaitek balortzen duela ikustea oso motibagarrria da, lanean jarraitzeko eta proiektu barrieta murgiltzeko eta gehiago arriskatzeko.

**Joxan Ormazabalek bere ipuina ilustratzeko eskaria egin zizunean, nola hartu zenuen erronka?**

Illusio handiz; txikitatik gozatu izan dut haren kanta eta ipuinekin. Orain dela urte batzuk izan nuen aukera haren Zirkua amets ipuineko irudiak egiteko. Liburuarekin, gainera, Etxepare saria jaso genuen. Bagenuen górgoa berriro ere elkarrekin lan egiteko.

**Ipuin hunkigarria kontatzen da. Erraza izan zen Ormazabalen hitzak ilustratzea?**

Hasieran, umeentzat egitea pentsatu genuen, beraz, irudi alai eta koloretsuak egitea zen ideia; aurerrago, Joxan gabe, bakarrik jarritu behar izan nuenean, zaila egiten zitzaidan ipuinarekin jarraitzea, eta luzaroan gordea izan nuen.

Elkarrekoek ipuina irakurrita esan zidatenean Joxanen omenaldi gisa argitaratu nahi zutela, berriro Joxanen oharrak begiratu

eta hitzak gogoratzean, ipuinaren zentzia aldatu zen niretzat, eta berriro hasi nintzen momentu horretan sentitzen nuena hobeto transmitituko zuen hizkuntza bisual egokiagoaren bila. Joxanen azken ipuina izanda, hain ondo egin nahi nuen, ez zitzaidan batere erraza egin.

Ondoren egin ditudan irudiekin komparatz, ikusten dut nabari dela Joxanen ipuineko irudietan ez nintzela hain aske ibili, eta beldurra ere nabari dut.

**Nolako marrazkiak egin dituzu?**

Saiatu nintzen zerbait pertsonala eta sakonagoa egiten, poesiaz eta sentimenduz betetako irudiak. Askorri nire pertsonaiak tristura transmititzen die. Niri soseguia, oreka, lasaitasun sentsazioa ematen dit; bizitzan izatea gustatuko litzaidakeen jarrera, alegia.

